



## **Laura MINTEGI**

*Ilusioaren ordaina*, 1983, Erein (Narrazio laburrak / Relatos)

*Bai... baina ez*, 1986, Susa (Nobela / Novela)

*Legez kanpo*, 1991, Elkar (Nobela / Novela)

*Nerea eta biok* (también en inglés: *Nerea and I*), 1994, Txalaparta (Nobela / Novela)

*Sisifo maite minez* (también en castellano: *Sísifo enamorado*), 2001, Txalaparta (Nobela / Novela)

*Ecce homo* (también en castellano y en braille, mismo título), 2006, Txalaparta (Nobela / Novela)

## Una mirada a la literatura vasca desde Navarra\*

Laura MINTEGI

**C**ómo mirar la literatura vasca desde Navarra, sin vivir en Navarra. Es, de alguna manera, un ejercicio de extrañamiento, una suerte de exilio. Soy una escritora navarra que desde niña vive y se ha hecho vasco parlante en Bizkaia, y me gustaría abordar desde esta esquizofrenia un conjunto de reflexiones, paso a paso, según el ritmo indicado por las personas responsables de la revista.

### UNO. La situación de la literatura en Navarra

La literatura se encuentra estrechamente ligada al lugar donde nace, al territorio, el colectivo humano y, sobre todo, al idioma que la sostiene. La literatura es, por una parte, hija de su tiempo y, por otra, producto del idioma que utiliza. Por lo tanto, difícilmente podríamos decir que una literatura goza de buena salud si la lengua que la crea está enferma y su colectivo de hablantes se encuentra minorizado.

212

Y el euskara está enfermo, es una lengua minorizada. No hay un solo espacio en el mundo donde saber euskara sea imprescindible para la comunicación, puesto que todos los vascos parlantes son bilingües. Y son bilingües por necesidad ya que necesitan un segundo idioma para poder vivir en Euskal Herria: saliendo del espacio privado no es posible vivir sólo en euskara.

Así pues, la literatura que escribe en euskara tiene dos opciones: reflejar esa realidad lingüística o ignorarla. La literatura de carácter realista pierde bastante credibilidad si no recoge la situación lingüística de los personajes o la diglosia dominante en la sociedad. Por ello, precisamente por intentar evitar ese problema, muchas de las novelas de finales del siglo xx recurrieron al subterfugio, queriendo esquivar el Aquí y Ahora, y las novelas se situaron en la Edad Media, o en la infancia, o se inventaron geografías imaginarias, donde el escritor y la escritora no hubieran de justificar la lengua en la que hablan sus personajes, porque viven en un no/lugar y en un no/tiempo.

### DOS. La relación entre los/as escritores/as navarros/as

Hablando de esquizofrenia, podríamos mencionar qué tipo de relaciones tienen quienes viviendo en un mismo territorio escriben en distinta lengua.

Los científicos saben que los montes unen y que los ríos separan a los pueblos que se encuentran en las dos orillas. Del mismo modo, los idiomas unen a quienes viven en diferentes espacios geográficos y, por el contrario, no compartir la lengua puede separar a quienes viven en

---

\* Traducción realizada por Óscar De Miguel. Biblioteca de la Universidad Pública de Navarra

## Euskal literaturari begirada Nafarroatik

Laura MINTEGI

**N**afarroatik nola begiratu euskal literaturari, Nafarroan bizi barik. Ariketa estrainioa da edo nondik ere, erbesteratze mota bat. Txikitatik Bizkaian bizi eta Bizkaian euskaldundu den idazle naparra naiz, eta esquizofrenia horretatik abiatuta ekin nahi nioke hausnarketa sorta honi, atalez atal, aldizkariaren arduradunek eskatutako erritmoaren arabera.

### BAT. Literaturaren egoera Nafarroan

Literatura estuki lotuta dago beraren sorlekuarekin, lurralde eta giza kolektiboarekin eta, batez ere, estuki lotuta dago berau sostengatzen duen hizkuntzarekin. Literatura garaiaren alaba da batetik eta, bestetik, darabilen hizkuntzaren emaitza. Beraz, nekez esan genezake literatura bat osasuntsu dagoela hura sortzen duen hizkuntza gaixo badago edo eta hiztunen kolektiboa gutxitua bada.

Eta euskara gaixo dago, hizkuntza gutxitua da. Munduan ez dago eremu bakarra non euskara jakitea ezinbestekoa den komunikatzeko, euskal hiztun guztiak elebidunak dira eta. Eta elebidunak dira halaberrez, bigarren hizkuntza bat behar dutelako Euskal Herrian bizi ahal izateko: pribatuaren eremutik ateraz gero ez dago euskara hutsean bizitzerik.

213

Beraz, euskaraz idazten duen literaturak bi aukera ditu: errealitate linguistiko hori islatzea ala errealitatea enoratzea. Jite errealista duen literaturak sinesgarritasun dezentea galtzen du ez badu jasotzen pertsonaien egoera linguistikoa, edo gizartean nagusi den diglosia. Horrexegatik, arazo hori ekidin nahi izateagatik hain zuzen, xx mendeko amaierako nobela askok eta askok ihesbidera jo zuten, Orain eta Hemen ekidin nahian, nobelak Erdi Aroan kokatu ziren, edo haurtzaroan, edo geografia imajinarioak asmatu ziren, non idazleak ez duen justifikatu behar zein hizkuntzatan mintzatzen diren euren pertsonaiak, ez-leku eta ez-garai batean bizi direlako.

### BI. Idazle napparren arteko harremana

Eskizofreniaz ari garela, aipa genezake zernolako harremanak dituzten lurralde berean bizi eta hizkuntza ezberdinetan idazten duten idazleak.

Zientzilariek badakite jakin mendiek batu eta ibaiek banandu egiten dituztela ur-bazter bietan kokatzen diren herriak. Halaxe ere, hizkuntzak batu egiten ditu eremu geografiko ezberdinetan bizi direnak, eta hizkuntza bera ez konpartitzeak banandu ditzake lurralde berean bizi direnak. Euskal idazle guztiek elkarren berri dute Nafarroan bizi, Ingalaterran bizi, Bizkaian

un mismo territorio. Quienes escriben en lengua vasca tienen referencias unos de otros, vivan en Navarra, Inglaterra, Bizkaia o Estados Unidos. Pero en nuestra vecindad quienes escribimos en dos lenguas diferentes no nos conocemos. No tenemos espacios de encuentro, no sabemos los unos de los otros, no tenemos los mismos problemas ya que la sociología de cada uno y cada una es diferente. Es la lengua la que impone el espacio de actuación del escritor y la escritora, el ámbito de relación y no el lugar de residencia.

Quienes escriben en euskara son escritores y escritoras *euskaldunes*. Ahí se encuentra lo sustantivo, es decir, la lengua en la que crean literatura; y, sin embargo, dónde han nacido, dónde viven o dónde escriben es lo adjetivo. No modifica lo sustantivo.

### TRES. ¿Es posible convivir con las Instituciones?

En general, las Instituciones, desconfían de la cultura. A juicio de los responsables políticos, los creadores de cultura no son productivos, son dados a la crítica, incómodos, hacen pensar y son insaciables pedigüños.

Unas pocas Instituciones pretenden mostrarse como protectores de la cultura, pero diría que ninguna cree realmente que mediante la cultura somos más libres, que la ciudadanía tiene derecho a recibir cultura sin pagar un precio y que la cultura es el activo más importante de un pueblo, el que le da identidad y carácter.

Contemplan la cultura como a un niño hambriento, siempre insatisfecho y menor de edad, un ser dependiente que nunca llegará ni a la madurez ni a independizarse. Además, parece que prefieren que siga siendo dependiente, por si acaso.

## 214

### CUATRO. El pasado, el presente y el futuro próximo de la literatura

#### vasca

Los padres de la literatura vasca son Lizardi, Lauaxeta y Aristi en poesía y Mirande, Txillardegui y Saizarbitoria en la novelística. Muchos padres y ninguna madre. Pero resulta complicado hablar del presente y más aún hablar del futuro cercano. El centro pierde protagonismo y las periferias se muestran emergentes. Los géneros se mezclan y los límites se desdibujan y un nuevo tropel de escritores-as se forma cada cinco años. No resulta sencillo adivinar quién permanecerá y quién desaparecerá, ya que el eco del momento está ligado a la promoción de las editoriales y se necesitará tiempo para que la calidad sea juez. Más allá de su valor literario, razones no literarias han influido en la difusión de un libro, o un artista, o en su silenciamiento.

En algunas antologías hechas en este país se ha considerado escritores o escritoras a quienes al cabo de diez años no lo eran. Quién sabe qué leerán las siguientes generaciones. Podría ser que los que hoy son los más vendidos queden en el futuro en el pozo del olvido.

### CINCO. Los lectores y las lectoras, la crítica y los achaques de una lengua minorizada

Nuestros lectores y nuestras lectoras son, en gran medida, cautivos y cautivas del sistema educativo que les obliga a leer. Son pocos y pocas los lectores y las lectoras libres y muchos de ellos tienen relación profesional con la producción cultural. Pero eso también está cambian-

edo Estatu Batuetan. Gure auzoan, ordea, ez dugu elkar ezagutzen bi hizkuntza ezberdinetan bizi garen idazleak. Ez dugu topagunerik, ez dugu elkarren berri jasotzen, ez ditugu arazo berdinak, literatura bakoitzaren soziologia diferentea delako. Hizkuntzak ezartzen du idazlearen jardun-eremua, harreman-arloa, eta ez bizilekuak.

Euskaraz idazten duten idazleak euskal idazleak dira. Hori da sustantiboa, zein hizkuntzaren bidez sortzen duten literatura alegia. Non jaiok diren, edo non bizi diren, edo non idatzi nahi duten adjektiboa da. Ez du sustantiboa aldatzen.

### **HIRU. Erakundeekin ba al dago bizitzerik?**

Erakundeak, oro har, mesfidatiak dira kulturarekiko. Agintari politikoen ustez, kulturgileak ez dira produktiboak, kritikazaleak dira, deserosoak, pentsarazi egiten dute eta eskale asezinak dira.

Erakunde gutxi batzuek planta egiten dute, eta kulturaren babesle gisa agertu nahi dute euren burua, baina esango nuke bakar batek ez duela egiatan sinisten kulturaren bidez askeagoak garela, herritarrek kultura debalde jasotzeko eskubidea dutela eta kultura dela herri baten aktibo garrantzitsua, identitatea eta sena ematen dizkiona.

Elikatu gabeko ume gosetizat dute kultura, beti gose eta beti ume, autonomia izatera edo heldurarora inoiz helduko ez den izaki menpekoa. Eta, gainera, menpeko izaten segi dezala nahiago izaten dute, zer gerta ere.

215

### **LAU. Euskal literaturaren iragana, oraina eta etorkizun hurbila**

Poesian Lizardi, Lauaxeta eta Aresti, eta nobelagintzan Mirande, Txillardegia eta Saizarbitoria dira euskal literaturaren aitak. Aita askotxo eta amarik ez. Zaila da, ordea, orainaz hitz egitea eta are zailagoa etorkizun hurbilaz. Erdigunea higituz doa eta periferiak indartsu azaltzen dira. Generoak nahasi eta mugak lausotu egiten dira eta idazle andana berria sortzen da bost urtero. Zein geratuko den eta zein desagertuko asmatzea ez da erraza izaten, unean uneko oihartzuna lorturik dagoelako argitaletxeen promozio lanari eta denbora behar izango da kalitatea izan dadin epailea. Arrazoi ez-literarioek eragin dute liburu edo egile baten hedapenean edo berau isilarazten, haren balio literarioa gora behera.

Herri honetan egon diren antologia batzuetan idazletzat jo ziren handik hamar urtera idazleak ez zirenak. Eta, kontrara, nork jakin zer irakurriko duten hurrengo belaunaldietakoek. Litekeena da egun salduenak direnak ahanzturaren putzuan gelditzea etorkizunean.

### **BOST. Hizkuntza gutxitu bateko irakurleak, kritika, ajeak**

Gure irakurleak irakurle kautiboak dira hein handi batean, irakaskuntza sistemak behartzen dituelako irakurtzera. Irakurle askeak gutxi dira eta kulturgintzarekin zerikusia dute profesio-nalki. Baina hori ere aldatuz doa, eskaintza gero eta hobea delako, gaiak eta estiloak dibertsifikatu direlako eta liburuaren industria profesionalizatu egin delako.

do, ya que la oferta es cada vez mejor, los temas y estilos se han diversificado y la industria del libro se ha profesionalizado.

Conocemos cuáles son los puntos fuertes y las debilidades del sistema literario vasco. Como hemos mencionado, han mejorado la producción y la distribución, pero falta despertar la curiosidad en el-la lector-a y la crítica tiene una importancia fundamental en el proceso de socialización de la literatura. No hemos sabido crear un camino intermedio entre la crítica académica y el comentario periodístico. Eso es lo que queda por hacer. Ser una literatura de un ámbito reducido no facilita las cosas: hay poca distancia entre el escritor o la escritora y el crítico, ya que son personas que se conocen mutuamente; muchos y muchas de los que escriben son periodistas, profesores-as o editores-as, el sistema es muy endogámico... En ese aspecto, cobra un especial interés la mirada de los-as críticos-as vascos-as que viven fuera de Euskal Herria.

### **SEIS. Sobre la traducción de la literatura vasca a otras lenguas**

Si el deseo del escritor y la escritora es la comunicación, a cuantos más idiomas sea traducido, mejor. Las instituciones deberían traducir de forma sistemática prácticamente todo cuanto se publica en euskara, como sucede en otras naciones: Islandia, Australia, Eslovenia... Sería la mejor forma de evitar la endogamia. Pero para hacer eso deberían creer en que la literatura vasca tiene algo que decir más allá del espacio geográfico de los-as vascos-as y sospecho que les falta confianza o, lo que es peor, que no conocen lo que hoy se escribe en euskara.

**216**

Por otra parte, hay que mencionar que la literatura vasca ha funcionado mejor en inglés, francés, alemán, holandés o italiano que en castellano. Resulta sorprendente el poco interés del sistema literario español hacia la literatura vasca.

### **SIETE. La literatura y los medios de comunicación**

Durante los últimos años las editoriales, las librerías y los medios de comunicación han hecho un gran esfuerzo de promoción, pero en nuestro caso tiene mayor importancia quién edita que lo que el escritor o la escritora ha escrito. Las obras de algunos escritores siempre se venderán, sean buenas o malas. Muchos otros buenos escritores no conseguirán llegar al gran mercado. Tienen lectores fieles, pero difícilmente superarán las pequeñas ventas. Vivimos en la sociedad de la imagen y resulta difícil cambiar los estereotipos.

### **OCHO. Proteger las bibliotecas**

Las bibliotecas tienen gran importancia, son imprescindibles para socializar la cultura y ponerla al alcance de la ciudadanía. Cuanto más culta sea la sociedad, en mayor estima tendrá la labor de las bibliotecas. Con frecuencia he acudido a bibliotecas invitada por grupos de lectura y he podido ver de cerca el trabajo de los dinamizadores, dinamizadoras la mayoría de las veces, para ser más exactos. Me ha admirado contemplar cómo consiguen transmitir su afición por la literatura a los lectores, lectoras casi siempre. Además de los escritores, toda la sociedad tiene que agradecer a las bibliotecas y a quienes ahí trabajan el ingente trabajo que realizan a favor de la literatura.

Ezaguna da euskal literaturaren sisteman zein diren indarguneak eta zein ahuleziak. Arestian esan bezala, produkzioa eta banaketa hobetu dira baina falta da jakinmina piztea irakurlearen, eta kritikak bereziko garrantzia du literatura sozializatzeko prozesuan. Ez dugu asmatu erdibidea sortzen kritika akademikoaren eta prentsa-iruzkinaren artean. Hori da egiteko falta dena. Eremu txikiko literatura izateak ez ditu errazten gauzak: distantzia gutxi dago idazlearen eta kritikariaren artean, denak elkar ezagunak direlako; idazle asko kazetariak dira, irakasleak edo editoreak eta sistema oso endogamikoa da... Alde horretatik interes berezia izaten du Euskal Heritik kanpo bizi diren euskal kritikarien begiradak.

### **SEI. Euskal literatura beste hizkuntzetara itzultzeaz**

Edozein idazleren nahia komunikatzea baldin bada, zenbat eta hizkuntza gehiagotara itzuli are eta hobeto. Erakundeek sistematikoki tzuli beharko lukete euskaraz argitaratutako ia guztia, beste herri batzuetan egiten den bezala: Islandia, Australia, Eslovenia... Endogamia saihesteko bide hoberena litzateke. Baina hori egiteko sinsitu beharko lukete euskal literaturak baduela zeresana euskaldunen eremutik kanpo, eta sumatzen dut konfiantza falta zaiela edo, txarragoa dena, ezagutu ere ez dutela ezagutzen zer ari den egiten egun euskaraz.

Esan behar da, bestalde, euskal literaturak hobeto funtzionatu duela ingelesez, frantsesez, alemaneraz, holanderaz edo italieraz, gaztelaniaz baino. Harritzekoa da zein interes gutxi duen sistema literario espainiarrak euskal literaturarekiko.

### **ZAZPI. Literatura eta hedabideak.**

217

Azken urteotan argitaletxeek, liburu-dendek eta komunikabideek ahalegin handia egin dute promozioan, baina gurean garrantzi handiagoa du nork argiratzeko duen, idazle horrek zer idatzi duen baino. Idazle batzuen lanak beti salduko dira, onak edo txarrak izan arren. Beste idazle on askok, ordea, ez dute lortuko ailegatzea merkatu zabalera. Irakurle fidelek dituzte baina nekez gairatuko dute salmenta kopuru txikia. Irudien gizaratean bizi gara. Zaila da irudietatik letretaraino heltzea.

### **ZORTZI. Liburutegiak babesleku**

Liburutegiak garrantzi handikoak dira, ezinbestekoak, kultura sozializatzeko eta herritar guztien eskura jartzeko orduan. Zenbat eta kultuago izan gizaratea, are eta estimu handiagoa dio liburutegiaren eginbeharrari. Askotan suertatu zait liburutegi batean mintzatzea irakurle-talde batek gonbidatuta eta hurbiletik ikusi ahal izan dut dinamizatzaileen lana. Txundituta gelditu naiz ikustean nola lortu duten euren literaturazaletasuna irakurleei transmititzea. Ez bakarrik idazleek, gizarate osoak badu zer eskertua liburutegiei eta haien langileei.